

### -3. kontsulta-

Egun euritsu bat zen eta egunero bezala, Ali futbol zelaira joan zen. Mikel eta bere taldea han zeuden, futbolean jokatzen. Alik futbolean ea jokatu ahal zuen galdetu zuen eta Mikelek honela erantzun zion, “Zu, moro bat gurekin jokatzen, ezta pentsatu ere! Eskuekin jan, eskolara pijamarekin joan, arraro usaintzen duzu... Txoratuta al zaude edo zer?”

Ali haserretuta etxera joan zen. Mikel eta bere taldea futbolean jokatzen hasi ziren barrezka. Baina, orduan, Mikel txirristatu egin zen eta hanka apurtu zuen.

Mikel negarrez ospitalera joan zen eta 3. kontsultan ingresatu zuten. Orduantxe entzun zen megafonotik: “Hajibi doktorea 3. kontsultara mesedez...”

Marroia 1